

DISERTAZIOA MODALITATEAREN OINARRIAK

Nork har dezake parte?

- EAEko edozein ikastetxeko Batxilergoko ikasleek (ikastetxe bakoitzeko 10 ikasle gehienez).
- Parte hartzea **bakarkakoa** da.

Zertan datza modalitate hau?

- **Disertazio filosofiko bat da.**
- Ikasleek frogaren momentuan iragartzen den gaia garatu beharko dute. Gai hau testu baten Olinpiadako **gaiari buruzkoa** izango da.
- **Edizio honen gai orokorra hau da: EROMENA**
- Testua **euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez** idatzi ahalko dute.
- Testua originala izan beharko da. Epaimahaiak esaldi edo paragrafoen kopiak hautematen baditu, epaimahaiak lana kanporatuko du.
- Era berean, **adimen artifizialaren** erabilaren zantzurik somatuz gero, lana deskalifikatuko da.
- Idatziaren **gehienezko luzeera lau orrialdeakoa izango da**. Testuaren formatua: **Arial 11 eta 1.5eko lero arteko espazioa**.
- **Disertazioaren artxiiboaren izena partaidearen NANA izango da eta korreoaren gaia hurrengoa izan beharko da: NAN zenbakia eta segidan "disertazioa" hitza.** Frogaren orrialdeetan ez da izen-abizenik jarriko zuzenketaren orduan anonimatua zihurtatzeko.
- Edozein irakasle materiala proposa dezake web-orrira igotzeko, horretarako filolimpiadaeuskadi@gmail.com helbidera bidali ahal du edo antolatzaileekin harremanetan jarri.

Lanaren bidalketa

- Lana bidaltzeko epea **2026ko urtarrilaren 23an**, ostiralean, amaituko da.
- **Goizeko 8etan argitaratuko da froga eta arratsaldeko 20:00ak baino lehen bidali beharko da.**
- **Irakasleek haien ikastetxeko lanak formulario baten bitartez bidali beharko dute.**
- **Artxiiboaren izena partaidearen NANA eta korreoaren gaia hurrengoa izan beharko da: NAN zenbakia eta segidan "disertazioa" hitza.**
- Aurkeztutako lanen erabilera, erreproduzio, erakusketa edo hedapen eskubide guztiak Euskadiko Filosofia Olinpiadarenak izango dira; betiere lanaren egilea aipatuko delarik.
- **Finalistek haien lana aurkeztu eta defendatu beharko dute Sari Banaketan**, horretarako haien idatziaren zati bat irakurriko dute jendeaurrean eta epaimahaiaren galderei erantzungo diete.
- Espainiako Olinpiadan (OFE) parte hartuko dutenek REFari baimena ematen diote haien lan finalistak argitaratzeko, eta finalaren ondorengo hilabete bateko epean haien lanak eskaneatzeko eta formatu digital batera pasatzeko konpromisua hartzen dute. Baldintza hau betetzen ez dutenak OFEko testuen edizioaren kanpo geratuko dira.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

Nola baloratuko da lana?			
Adierazpen argia eta zehatza 2 puntu	Estruktura egokia 3 puntu	Argudiatze zuzena eta aberatsa 3 puntu	Originaltasuna 2 puntu
• Erabilitako hiztegia egokia da eta gaiarekin lotuta dago. • Paragrafoen arteko lotura dago, irakurketa erraza delarik. • Ortografia eta sintaxia zuzenak dira. • Aurkezpena txukuna da.	• Sarrera, garapena eta konklusioa argi ezberdintzen dira. • Sarrera argia da: gaiaren aurkezpena egiten da, berorren interes eta arazoak aurkeztuz. Tesia aurkezten da edo galdera batekin planteatzen da. • Garapean gaiarekin lotutako ideiak aurkezten dira, filosofiaren historian emandako ikuspegiei erreferentzia eginez. • Garapenean agertzen diren ideien arteko lotura dago. • Konklusioan tesiari eusten zaio eta berorren aldeko aurreko argudioak laburtzen dira.	• Argudiaketa testuaren gaiari lotuta dago. • Objektiboa eta kritikoa izateko esfortzua ikusten da, aurreiritziek eramaten utzi gabe. • Tesiaren aldeko argudioak ematen dira, gutxienez 3, eta gutxienez behin filosofiaren historian emandako ikuspegiei erreferentzia eginez. • Garapen koherente eta sendoa egiteko esfortzua ikusten da.	• Adibideak agertzekotan, idazlearen egunerokotasunetatik gertu daudenak dira. • Ez da beste persona edo proposamen baten kopia egiten. • Perspektiba pertsonala aurkezten da eta estereotipoetatik urruntzeko esfortzua erakusten da.

Informazio gehiago hemen:
<http://euskadikofilosofiaolinpiada.mozello.com>
filolinpiadaeuskadi@gmail.com